



AA/ig

E-IN-008/19  
01-IN

## EBAZPENA – RESOLUCIÓN

Donostia, 2019ko urtarrilaren 16a  
San Sebastián, a 16 de enero de 2019

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua lehen mailako gizarte interesa duten politikak garatzen ari da, zeinak herritarrei iritsarazi behar zaizkien, gardentasunaren mesedetan. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren gidalerro nagusiak zehazteko, eta jarduerak behar bezala zabaltzeko, foru diputatuak Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak antolatzen dituen jardunaldi, erakusketa eta ekitaldietarako euskarriak ekoiztu eta grafikoak inprimatzeko zerbitzuak kontratatze beharra du.

Kontratazio horren oinarritzko baldintzak Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren 2019ko urtarrilaren 9ko proposamen teknikoan jasota daude.

9/2018 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuena, 159.1.b) artikuluan xedatzen duenaren arabera, kontratua prozedura ireki bidez esleitu behar da, balio iritzi bidez ebaluatu behar diren irizpideak % 25 baino gehiago baitira.

Beraz, Ingurumeneko zuzendari nagusiak, honako hau

### EBAZTEN DU

**Lehenago.-** Onestea Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak antolatutako jardunaldi, erakusketa eta ekitaldietarako euskarriak ekoiztu eta grafikoak inprimatzeko zerbitzuak kontratatze espedientea (2019/07-HH-ZI). Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 40.000,00 euro da, eta horri gehitu behar zaio % 21eko BEZa, guztira 48.400,00 euro, eta egikaritzeko gehieneko epea 2019ko abenduaren 31 da.

**Bigarren.-** Onestea baldintza administratibo berezien agiria eta kontratazio espedientea, eta abian jartzea kontratua esleitzeko prozedura ireki sinplifikatu

El Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas está desarrollando políticas medioambientales con un interés social de primera magnitud cuya comunicación a la ciudadanía es imprescindible en aras de la transparencia. Para poder definir con acierto las principales directrices y una correcta difusión de las actuaciones departamentales correspondientes a la Dirección General de Medio Ambiente, el Diputado Foral precisa de la contratación de producción de soportes e impresión de gráficas para jornadas, exposiciones y eventos organizados por la Dirección General.

Las condiciones básicas de la contratación están recogidas en el informe técnico emitido por la Dirección de Medio Ambiente de fecha 9 de enero de 2019.

En virtud de lo establecido en el artículo 159.1.b) de la Ley 9/2018, de 8 de noviembre, reguladora de los Contratos del Sector Público, el procedimiento de adjudicación del contrato es el procedimiento abierto, toda vez que los criterios de adjudicación sometidos a juicio de valor exceden del veinticinco por ciento del total.

En consecuencia, esta Directora General de Medio Ambiente

### RESUELVE

**Primero.-** Aprobar el expediente de contratación de servicios de producción de soportes e impresión de gráficas para jornadas, exposiciones y eventos organizados por la Dirección General de Medio Ambiente (2019/07-HH-ZI), con un presupuesto base de licitación de 40.000,00 euros, más el IVA del 21% correspondiente, sumando un total de 48.400,00 euros y con un plazo máximo de ejecución hasta el 31 de diciembre de 2019.

**Segundo.-** Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el Pliego de Prescripciones Técnicas que regirán la contratación.



laburtua.

**Hirugarren.-** Baimentzea kontratazio horri dagokion gastua, 48.400 eurokoa, aurrekontuko 1.0910.110.622.00.00.2019 partidaren kargura.

**Laugarren.-** Xedatzea lizitazioa irekitzea, kontratua prozedura irekiaren bidez esleitzeko, eta agintzea dagokion iragarkia argitara dadila kontratzailearen profilean.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Interesatuak ebazpen honen aurka GORA JOTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiekete Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatuari, jakinarazpenaren edo argitalpenaren biharamunetik hasita HILABETEKO EPEAN. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

**Tercero.-** Autorizar un gasto de 48.400 euros con cargo a la partida presupuestaria 1.0910.110.622.00.00.2019.

**Cuarto.-** Disponer la apertura de la licitación por el procedimiento abierto para la adjudicación del contrato, y ordenar la publicación del correspondiente anuncio en el perfil del contratante.

La presente Resolución no pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer RECURSO DE ALZADA ante el Diputado Foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas en el plazo máximo de UN MES contado a partir del día siguiente al de su notificación o publicación, sin perjuicio de utilizar cualquier otro recurso que estimen pertinente.

**INGURUMENEO ZUZENDARI NAGUSIA,  
LA DIRECTORA GENERAL DE MEDIO AMBIENTE,**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Ingurumeneko eta Obra  
Hidraulikoetako Departamentua  
Departamento de Medio Ambiente  
y Obras Hidráulicas

Izp./Fdo.: Mónica Pedreira Lanchas